



GURE GILTZARRIAK ERDIGUNEAN JARRIZ EGIN DUGUN IRAKURKETA

Konfinamenduko hirugarren astea abiatzen ari garen honetan, krisi honi komunitate bezala aurre egiteko garatu ditugun jarreraren inguruan hausnartzeko tarte bat hartu nahi genuke. Nork bere etxetik, eta elkarren zaintza erdigunean jarrita.

Denbora dexente pasa da eskolak itxi eta haurrak esfera publikotik desagerrarazi genituenetik, baina jarri al dugu arretarik beraien behar, nahi eta mundua ulertzeko duten modu propioetan? Haurren arteko harremanak, mugimendua, jolaserako espazioa, aire librea, naturarekiko kontaktua eta beraien egunerokoan behar-beharrezko dituzten hainbeste aspektu, ia guztiz mugatu dizkiegu egun batetik bestera beraien iritziei muzin eginez. Hori horrela, bi aukera ditugu, inposatutakoa onartu edota jendarte honetako pertsona zaurgarrienak diren haurrak erdigunean jartzeko aukera baliatu. Oinherrik, bigarrenaren alde egiten du eta bizi dugun momentua baliatu nahi du amesten dugun jendarte eredurantz pausuak ematea beharrezkoa dela azaleratzeko.

Osasun krisi honek, guztion begien aurrean jarri digu zaintza, eta benetan da garrantzitsua. Argi geratu da, ez dela nahikoa norbere burua bakarrik zaintzea, elkar zaintzea ezinbestekoa dela ondorioztatzera iritsi gara. Alabaina, betiko mugekin topo egin dugu, benetan elkar zaintzeko, behar-beharrezkoa baita erritmoa jaitsi eta patxada hartzea. Esaterako, elkarrekin egoteko denbora hartu, momentuaz gozatzen berrikasi, bakoitzak izan ditzakegun emozio, kezka, sentipenak... elkarbanatu eta sostengatu.

Zaintza erdigunean jarri nahi badugu, merkatua, produkzioa eta lana dira erdigunetik atera beharrekoak. Ezinezkoa da gure haurrak, aiton-amonak, beharrak dituzten bizilagunak, gure buruak zaintzea, sistemak inposatzen digun lan erritmoa jaisten ez badugu.

Itxialdi honetan, inoiz baino nabarmenago geratu da tokikotasuna eta komunitategintzaren garrantzia. Tokian tokiko ezaugarri eta dinamikak kontuan izan gabeko lege bakar bat denontzat aplikatzearen ondorioak paraitzen ari garen egunotan, herritartasunaren ardura eta gobernantza eredu berrien beharra agerian geratu da. Herritar zaurgarrienak erdigunean jarri eta herritar guztien parte hartzearen bidez bakarrik eraiki daitezkeen gobernantza eredu berriak.

Honen harira, osasun krisi honen aurrean modu eredugarrian antolatu gara gure herri eta auzo askotan elkar zaintzeko, elkarri laguntzeko. Miresteakoak dira, haurren parte-hartzea sustatzeko, aisialdia hezitzailea sustatzeko, herrigintzatik sortutako ekimen eta proposamenak ere. Zaintza, komunitatea eta herrigintza ardatz hartuta egindako lan gutziak. Argi geratu baita, zenbat eta komunitate saretuagoa eta indartsuagoa eduki, horrelako larrialdi egoera batetik lehenago eta hobeto atera gaitezkeela.

Balia dezagun aukera hau txikitasuna handi egiteko, aniztasunaz gozatzeko, gure haurrekin ametsak elkarbanatzeko eta elkar hobeto ezagutzeko. Etorriko dira frustrazioak eta haserreak, saia gaitezen emozio horiek ere onartzen, lasai hartzen eta horiek zer esan nahi duten ere ulertzen. Etorriko dira asperraldiak, ez diezaiegun beldurrik izan, aspermenak sormena pizten baitu. Eta gaur inoiz baino gehiago behar dugu sormena, gauzak beste modu batean pentsatzen ikasteko, eta nola ez, amesteko! Elkarrekin asmatuko dugu!

Pasa den martxoaren 28an, Oinherri herri hezitzaileen sarea aurkeztekoak ginen, ekimenarekin bat egin duten herri guztiekin batera antolatuta genituen jardunaldi batzuetan. Konfinamendu egoera honek, aurkezpen hori atzeratzea eragin badu ere, inoiz baino ilusio, indar eta konbentzimendu handiagoz jarraitzen dugu lanean. Gure krisalidetan bilduta komunitate baten ametsa ari gara josten. Beldarrak izan ginen, baina argi dugu hemendik nola atera behar dugun. Oinherri, ipar horri begira lanean darraigu!

2020eko apirilaren 6a



Oinherri, Herri Hezitzaileak
sustatzeko elkarte.